



Herritarrek esateko dutenetik edateko

"Jaiaz harago" iristea izango da 11. Euskararen Maratoiko erronketako bat, euskararen erabilera urtean zehar sustatzeko oinarri izan dadin. Ildo horretatik ondu dute Euskara Zerbitzuko kideek Esnatu! kafe tertulia, euskaraz hausnartu eta herritarrei ahotsa emateko



Kafe tertuliako taldeetako baten dinamika irudikatu dute Euskara Zerbitzuko kideek, kafe katilu eta guzti. TXINTXARRI

Txintxarri

Urriaren 18an Okendo plazan egingo duten Esnatu! kafe-tertulian parte hartzen ariko balira bezala eseri dira Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuko kideak: elkarri begira, irribarretsu eta euskaratik eta euskaraz hitz egiteko gogoz. Estitxu Alkorta zinegotzia, Ana Labaka zerbitzuburua eta Aitor Unanue nahiz Axun Larburu teknikariak aritu dira hitz eta pitz, ekimen horren sorrerari eta dinamika-ri buruz.

11. Euskararen Maratoirako prestatutako kamisetak jantzi dituzte, eta ez alferrik: euskararen aldeko egitasmo erraldoi horren egitarauko mugarrietako bat izango da mintzodromo hori.

"Urriaren 17ko eta 18koa jaia izango da, bai, baina gehiagorako ere izan behar du: hiztunak aktibatze, egun horietan sortutako energia eta kemena bideratzeko, etorkizunean egin beharreko urratsez gogoeta egiteko eta lan-keta abiatzeko...", azaldu dute lauek. Hori horrela izanik, buruei eragin eta Esnatu! kafe-tertulia aurrera eramatea bururatu zitzaizen duela hilabete batzuk. "Modu goxo batean, kafe batekin... landu nahi ditugu 'euskararen aurkako oldarraldia' deiturikoa-ren bueltako gai guztiak. Azken finean, euskarari plaza ematea da gure asmoa, eta, ariketa horretatik aterako duguna lantzea gero". Hori esanda, argi utzi dute ez direla bilduko "negar egiteko



ikusten dute? Nola eragiten du horrek euren egunerokoan? Galdere horiek egin genizkien gure buruei eta, horregatik, beraiei eman nahi diegu hitza. Iruditzen zaigu, agian mintzatzen hastea zertxobait kostatzen bazaigu ere, denok dugula zeresana gai horien guztien bueltan".

Mintzodromoaren dinamika

Mihia, kontzientzia eta gogoa iratzartzeko asmoz hiru txandako ariketa izango da urriaren 18ko Esnatu! kafe tertulia. "09:00ak aldera hasiko gara eta parte hartuko duten taldeak aurkeztuko ditugu", aurreratu dute. Horren harira, jakinarazi dute norbanakoek, lagun kuadrillek, eragileetako ordezkariak, euskaltegieta-ko ikasleek eta establezimenduetako langileek parte har dezaketela. Aurreneko tarte 10:00etatik 11:00etara egingo dute; bigarrena, 11:30etik 12:30era; eta azkena, 12:30etik 13:30era. Kafea aurreneko orduetik edateko aukera izango badute ere, katiluak eskuetan atseden hartzeko tarte berezia 11:00etatik 11:30era artekoa izango da.

Ordubeteko txanda horietako bakoitzean bi gai izango dituzte taldeek eta horietako bakoitza ordu erdiz jorratuko dute. Hizketagai bakoitza paperezko fitxetan eta Okendo plazan jarriko duten pantailan aurkeztuko dute. Kafe-tertulian parte hartuko dutenak ez ezik, ikus-entzule izango diren herritarrek erakarri nahi dituzte antolatzaileek, horiek ere parte hartzeko aukera izango baitute: "Taldeetako kideek hitz egindakoa entzun ostean iritziak eman ahalko dituzte, fitxak bete-ta edo Kahoot aplikazioa digitala erabilita". Gauzak horrela, bai taldeen bai herritarren iritziak eta informazioa bilduko dituzte Euskara Zerbitzuko lagunek, hurrengo urteetako plangintza estrategikoaren barruan sartu eta 2027an zehar jorratu ahal izateko.

Kafea hartu, mokadutxoan jan, hitz egin, hausnartu... Ariketa oparoa izango da urriaren 18an Okendo plazan egingo dutena, 09:00etatik 13:30era. Ba, horrez guztiaz gain, bertaratzen direnek argazki ederrak ateratzeko aukera izango dute Esnatu! gune-ko photocall-ean goiz horretan zehar. Landuko dituzten gaiekin zerikusia izango dituzten leloekin kartelak egingo dituzte eta herritarren eskura jarriko dituzte, kameraren aurrean jar-tzeko.

"Ez gara bilduko negar egiteko, baizik eta kontzientzia hartzeko eta egin beharreko urratsez hitz egiteko"



Zuk ere **baduzu**
ZER ESANA!

Kafe-Tertulian herritarrek ere aukera izango dute parte hartzeko
Iritzia eman dezakete fitxen bidez baita aplikazio baten bidez!



Gerturatu
photocall gunera,
argazkia atera eta
iritzia eman dezakezu!



esnatu!
kafe-tertulia
URRIAK 18
09:00-13:00
Okendo Plazan



* Ordutegia:

10:00	Lehenengo txanda
11:00	Kafea + Bideoak
11:30	Bigarren txanda
12:30	Hirugarren txanda